

ERAKUSKETA

Intsektuak

Kontatzen duten guztia

Bilbon, 2026ko irailaren 23an. "Intsektuak. Kontatzen duten guztia" erakusketa iritsi da Bilbora, intsektuen aparteko aniztasuna herritarrei hurbiltzeko. Animalia-talde horrek ezagutzen diren espezie guztien % 60 eta % 70 artean biltzen ditu. Erakusketa honek, intsektuak zer diren, non bizi diren, nolako anatomia duten eta ingurunearekin zein pertsonekin nola erlazionatzen diren ezagutzeko gonbidapena luzatzen du. [EHUko Kultura Zientifikoko Katedrak](#) eta [Nafarroako Unibertsitatearen Zientziak Museoak](#) antolatu dute jarduera hau.

Erakusketaren helburua intsektuekiko jakin-mina piztea bada ere, harago doa: haien biologia, portaera eta ekologia aztertzeaz gain, elikadura-katean eta ekosistemen orekan egiten duten ezinbesteko ekarpena ere erakusten du. Era berean, erakusketa ikuspegi inklusibo eta irisgarri batetik diseinatu da, eta hainbat baliabide eskaintzen ditu intsektuen mundu liluragarria ahalik eta pertsona gehienengana hurbiltzeko.

Bisitariak erleen, kakalardoak, tximeletak, eulien, inurrien edo buruntzien forma eta kolore harrigarriak ezagutzeko aukera izango dute; baita uretan, airean, basoetan edo labore-lurretan bizitzeko garatu dituzten egokitzapen konplexuak ere. Erakusketak intsektuekiko miresmena pizteaz gain, haien babesa, habitatak mantentzeak eta biodibertsitatea zaintzeak duen garrantziaz kontzientziatu nahi du.

Espazioa **irailaren 19tik urriaren 4ra egongo da ikusgai Bilbon**, Bizkaia Aretoa-EHUko Axular erakusgelan eta sarrera doakoa izango da. Erakusketaren ordutegia honakoa izango da: astelehenetik ostiralera 08:00etatik 20:00etara, larunbateetan 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara, eta igandeetan 10:00etatik 14:00etara. Azken egunean, alegia, urriaren 4an, Sergi Romeu entomologoak tailer bat eskainiko du erakusketa borobildu eta ekimena ixteko.

Erakusketa inklusibo eta irisgarria

Erakusketa publiko guztiari zuzenduta dago, baina bereziki kontuan hartu dira ikastetxeak eta familiak. Ibilbidea modu koherentean antolatuta dago bisitaria gidatzeko. Gainera, informazio-panelak eta grafikoak, proiektzioak, terrarioak, eta esperientzia aberasten duten beste hainbat elementu interaktibo uztartzen ditu.

Gainera, erakusketak irisgarritasun-baliabide ugari eskaintzen ditu, besteak beste, irakurketa errazeko testuak, kontraste, kolore eta antolamendu irizpide egokituak dituzten irudiak; azpitituludun ikus-entzunezkoak, braillezko informazio-liburuxkak,

ukitzeko moduko 3D elementuak eta gurpildun-aulkiaren altueretara egokitutako beira-arasak.

Jarduera hau [Bilbo Zientzia Plaza \(BZP\) 2026](#) festibalaren parte da. Irailaren 16tik urriaren 4ra bitartean, BZPren bederatzigarren edizioak zientziaz beteko du Bilbo, hitzaldi, erakusketa, ikuskizun, tailer eta beste hainbat jarduerekin.

--



Erakusketa "Intsektuak. Kontatzen duten guztia"

Nafarroako Unibertsitatearen Zientziak Museoa ekoiztuta

Antolatzaileak: EHUko Kultura Zientifikoko Katedra eta Nafarroako Unibertsitatearen Zientziak Museoa.

Data: irailaren 19tik urriaren 4ra.

Lekua: Bizkaia Aretoa-EHU | Axular erakusgela.

Ordutegia: Astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 20:00etara. Larunbateetan, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Igandeetan (goizez bakarrik), 10:00etatik 14:00etara

Sarrera: doan.

Hizkuntza: elebiduna (euskara eta gaztelania).

Irigarritasun-baliabideak: irakurketa errazeko testuak paneletan eta karteletan, ukitzeko moduko 3D elementuak, braillezko informazio-liburuxkak; koloreak eta kontrastea zainduta irudien diseinuan; filmak azpitutuekin (gaztelaniaz); eta gurpildun-aulkien altueretara egokitutako beira-arasak.

EXPOSICIÓN

Insectos

Todo lo que cuentan

Bilbao, 23 de septiembre de 2026. La exposición "Insectos. Todo lo que cuentan" llega a Bilbao **para acercar al público la extraordinaria diversidad de los insectos**, un grupo de animales que representa entre el 60 y el 70% de todas las especies conocidas. La muestra invita a descubrir quiénes son, dónde viven, cómo es su anatomía y de qué manera se relacionan con su entorno y con las personas.

Organizada por la [Cátedra de Cultura Científica de la EHU](#) y el [Museo de Ciencias Universidad de Navarra](#), la exposición trata de despertar el asombro por los insectos, pero va un paso más allá: también explora su biología, comportamiento y ecología, así como su contribución vital a la cadena alimentaria y al equilibrio de los ecosistemas. Asimismo, la muestra ha sido diseñada desde una perspectiva inclusiva y accesible e incorpora distintos recursos para acercar el fascinante mundo de los insectos al mayor número posible de personas.

Quienes visiten la exposición podrán descubrir las sorprendentes formas y colores de abejas, escarabajos, mariposas, moscas, hormigas o libélulas, así como las complejas adaptaciones que les permiten prosperar en hábitats como el agua, el aire, los bosques o los cultivos. Además de tratar de despertar admiración por estos pequeños animales, la muestra tiene como objetivo concienciar sobre la importancia de protegerlos, conservar sus hábitats y preservar la biodiversidad.

La exposición "Insectos. Todo lo que cuentan" estará abierta al público de manera gratuita **del 19 de septiembre al 4 de octubre** en la sala Axular del Bizkaia Aretoa-EHU. El horario de visita es de lunes a viernes en horario de 8:00 a 20:00h, sábados de 10:00 a 14:00 y de 16:00 a 20:00h y domingos de 10:00 a 14:00h. La exposición concluirá el 4 de octubre con un taller impartido por el entomólogo Sergi Romeu.

Una exposición inclusiva y accesible

La exposición está dirigida a todos los públicos, aunque se ha concebido teniendo en cuenta al público escolar y familiar. El recorrido está pensado para guiar a quienes la visiten a través de una narrativa coherente, combinando paneles informativos y gráficos con proyecciones, terrarios y otros elementos interactivos que contribuyen a enriquecer la experiencia.

Además, la muestra incorpora textos de lectura fácil, imágenes con criterios de contraste, color y disposición adaptados, audiovisuales con subtítulos, folletos informativos en braille, elementos 3D para tocar y vitrinas adaptadas a la altura de silla de ruedas, entre otros recursos de accesibilidad.

Esta actividad forma parte de la iniciativa de divulgación científica [Bilbo Zientzia Plaza 2026](#). Del 16 de septiembre al 4 de octubre, la novena edición del festival BZP volverá a llenar Bilbao de ciencia con un amplio programa de conferencias, exposiciones, espectáculos, talleres y otras actividades.



Exposición: "Insectos. Todo lo que cuentan"

Una producción del Museo de Ciencias Universidad de Navarra

Organizadores: Cátedra de Cultura Científica de la EHU y Museo de Ciencias de la Universidad de Navarra.

Fechas: del 19 de septiembre al 4 de octubre.

Lugar: Bizkaia Aretoa-EHU. Sala Axular. Abandoibarra, 3. Bilbao.

Horario: de lunes a viernes de 8:00 a 20:00h. Sábados de 10:00 a 14:00 y de 16:00 a 20:00h. Domingos (solo de mañana) de 10:00 a 14:00 h.

Entrada: libre.

Idioma: bilingüe (euskera y castellano).

Recursos de accesibilidad: textos de lectura fácil en paneles y cartelas, elementos 3D para tocar, folletos informativos en braille; disposición, colores y contraste en imágenes, audiovisuales con subtítulos (castellano) y vitrinas adaptadas a la altura de silla de ruedas.